


# OIARTZUN

abuztuaren 2tik 6ra





**Joana Mendiburu Garaiar**
Oiartzungo alkatea



Badirudi atzo izan zela eta dagoeneko urte bat igaro da. Hemen dira berriz gure Xanistebanak. Urteroko gure errituala. Berritasunei uko egin gabe errepikatzen dugun ospakizuna. Poz-pozik errepikatu ere.

Herriko jaien onena da giro alai eta atseginean momentu ahaztezinak konpartitzen ditugula. Haur, gazte eta heldu, guztiak plaza inguruan elkartzeko urteroko ezinbesteko hitzordua dira. Aspaldian ikusi gabeko familiako kideak elkartu, lagun zaharrekin topatu eta berriak egiteko aukera ezin hobea.

Ospakizun guztien atzean bezala, jakina da aurten ere jende asko aritu dela lanean bost egunez alaitasuna gure artean zabaltzeko asmoz. Zoriondu nahi nituzke elkarteetako eta jai batzordeko lagun guztiak egindako lanagatik eta izandako inplikazioagatik. Hilabeteetan zehar luzatu diren bilerak, proposamenak, aurrekontu-eskaerak… jende askoren isileko lanaren emaitza da Xanistebanetako egitarau aberatsa eta osatua. Eskerrik asko jai herrikoi paregabe hauek antolatzeko egindako lanagatik!

Jaiak ospakizunerako aukera ezin hobea dira, maite ditugun horiekin elkartu eta une atseginak konpartitzeko, betiere, jai-eremua genero eta adin guztietako pertsonentzat gune segurua den neurrian. Eta ez nuke esan gabe utzi nahi segurtasun eremu horiek bermatzea eta zaintzea guztion ardura dela. Guztiok dugu jaiez gozatzeko eskubidea. Hortaz, jarrera desegokiren bat ikusten baduzu ez ezazu beste aldera begiratu. Jazarria den pertsona lagundu eta babesa eskaini behar diogu. Jai giroan ibiliko gara denak bai, baina jai giro arduratsuan, betiere ingurukoak errespetatuz.

Herritarrei dei egiten dizuet urtean zehar dugun lan-erritmoa, kezkak eta estresa posible duzuen neurrian alde batera uzteko. Jaiez ahal duzuen bezainbeste gozatzea opa dizuet eta jaietako hitzorduetan parte hartzeko gonbidapena luzatzen dizuet. Hartu egitaraua, irakurri eta azpimarratu itzazue galdu nahi ez dituzuen ekintzak. Nik neuk halaxe egingo dut eta antolatutako ekimenetan zuetako asko aurkitzea espero dut.

Beste urte batez abuztuaren 2an hasi eta bost egunez alaitasuna nagusiko da herrian. Oiartzungo alkatetzatik Xanisteban festa alai eta zoriontsuak opa dizkizuet herritar guzti-guztiei.

**LEHERTU DADILA JAI-GIROA!**
**GORA XANISTEBANAK!**




Oiartzungo Udalak, herriko elkarteen laguntzaz eta herritar guztien gozamenerako, abuztuaren 2, 3, 4, 5 eta 6rako eratu duen
**JAI ETA KULTUR EKINTZEN EGITARAUA**

## ABUZTUAK 2 asteazkena

**Egunean zehar** Auzoz auzoko 42. ibilaldia: OIARTZUNGO MUSIKARIZ osatutako taldea ibiliko da auzoz auzo, Xanistebanak hastera doazela iragarriz.
Antolatzaileak: Ibargain Musika Eskola eta Oidultz Dultzaina Taldea

**18:30** AGERRALDI FEMINISTA, herriko plazan.
Antolatzailea: Oiartzungo Feministen Asanblada

**Ondoren** GOXO TXARANGAK Done Eztebe Plaza eta inguruko bazterrak animatuko ditu.

**19:30** Udalbatzako kideek SOKADANTZA dantzatuko dute, Herriko Plazan, Haurtzaro Dantza Taldearen eta Lartaun Txistulari Taldearen laguntzaz.

**Ondoren** Jai Batzordeak proposatuta, bizitza osoko lanagatik eta Oiartzun sukaldaritzako erreferente bihurtzeagatik, **HILARIO ARBELAITZek**, herriko alkateak eta udalbatzako kideek **SUZIRIA** botako dute.

**Kanpai-soinu alaitsuekin batera, jaiak hasiko dira.**

**Jarraian** OIARTZUNGO ERRALDOIEN ETA BURUHANDIEN kalejira, herrian zehar, dultzaineroen eta Lartaun Txistulari Taldearen laguntzaz.

**Ondoren** ZIMITIYOKO TXOSNAren irekiera.
Antolatzailea: Zimitiyoko txosna

**23:00** Musika Jaialdia, Done Eztebe plazan:
TRIKIDANTZ

**24:00** Musika Jaialdia, Txosnagunean.
KULUXKAKLAN
DUPLA
Antolatzaileak: Musika Batzordea



# ABUZTUAK 3 osteguna

## XANISTEBAN EGUNA

**07:00** SOKAMUTURRA, Beheko Plazan.
Antolatzailea: Auzokalte Elkartea

**07:00** GOSARI TXOW, Done Eztebe plazan.
Antolatzailea: AIA

**09:00** GOIZ ERESIA.
Antolatzailea: Lartaun Txistulari Taldea

**10:30** Festetako EZKILA JOALDIAK.
Antolatzailea: Oiartzungo ezkila-jotzaile taldea

**11:00** HERRI MEZA NAGUSIA, Done Eztebe Parrokian.
Lartaun Abesbatza kantuan, Begoña Bergaretxe harmoniumean.

**Ondoren** 46. KONTZERTU HERRIKOIA, Kontzejupean, Euskal doinu, kanta eta dantzetan oinarritutako emanaldia.
Antolatzailea: Lartaun Txistulari Taldea

**11:30** UR PUZGARRIAK, Haurtzaro Ikastolan.
Antolatzailea: AIA

**16:00** Madalensoro pilotalekuan, Oiartzungo Auzoen Arteko 35. SOKATIRA TXAPELKETA.
Antolatzailea: Artaso Elkartea

**16:30** Ipuin kontaketa 2-6 urte bitarteko haurrentzat, Arizmendienean. Ondoren, merienda osasungarria.
Antolatzailea: Elizaldeko Guraso Elkartea

**19:30** DANTZA BILERA txistulariekin, Kastroko iturrian.
Antolatzailea: Lartaun Txistulari Taldea

**23:00** Dantzaldia JANUS LESTER taldearekin, Done Eztebe plazan.

**Ondoren** MIKELTXI DJa, Done Eztebe plazan

**23:30** Musika Jaialdia, Txosnagunean.
MUGAN
ZULO
Antolatzaileak: Musika Batzordea




## ABUZTUAK 4 ostirala

## BASERRITAR EGUNA

**09:00** GOIZ ERESIA.
Antolatzailea: Lartaun Txistulari Taldea

**10:00** HemenGuk, Oiartzungo PRODUKTUEN AZOKA,
Done Eztebe Plazan.
Arraztalo Elkartearen produktu ekologikoak eta
HemenGuk herriko ekoizleenak.
Antolatzailea: Arraztalo Elkartea

**10:30** Oiartzungo Herri Musika Eskolakoen kale-bueltak
Done Eztebe plazatik abiatuta.
Antolatzailea: Soinuenea Fundazioa

**10:30** IDI DEMAren lehenengo txanda, hilerriaren goiko aldeko
plazan. Oiartzungo harria erabiliko da (1.800 kg-koa).
1.100 kg-tik gorako pisua duen idi pare bakoitzak 1,5 kg-ko
gain-zama hartu beharko du gainditzen duen kilo bakoitzeko.
Federatuak izango dira.
Antolatzailea: Oiartzungo Idiyazaleak Elkartea

**11:00** ZAHARREN EGOITZARAKO BISITALDIA, Haurtzaro Ikastolako
Dantza Taldearekin, Lartaun Txistulari Taldearekin eta
trikitilariekin.
Antolatzailea: Haurtzaro Ikastola

**11:50** Inaxio Uharte 22. SAGARDO LEHIAKETAren hasiera,
Done Eztebe plazan.
Herriko sagardoa dasta eta balora ezazu edalontzia erosiz!
Antolatzailea: Ibargain Elkartea

**12:00** Oiartzungo PINTXO-LEHIAKETA, Done Eztebe plazan.
Herriko elkarte eta tabernek egindakoen artean, pintxo onena
nork egin duen jakingo dugu.
Antolatzailea: Ibargain Elkartea

**12:00** Oidultz DULTZAINA TALDEAren kale-bueltak Done Eztebe
plazatik abiatuta.
Antolatzailea: Oidultz Dultzaina Taldea

**12:30** BERTSOLARIAK, Done Eztebe Plazan
Julio Soto Ezkurdia eta Miren Amuriza Plaza gai librean.
Antolatzailea: Martzelina Bertsozale Elkartea

**13:15** Oiartzungo PINTXO LEHIAKETA; sarien banaketa,
Done Eztebe plazan.



**13:30** Inaxio Uharte 22. SAGARDO LEHIAKETAren sari banaketa, Done Eztebe plazan.

**14:00** Oiartzungo Udalak BAZKARI GOXO BAT ESKAINIKO DIE HERRIKO ERRETIRATUEI, Gazte Izanak elkartearen laguntzarekin. Ondoren, musika izango da, nahi duenak dantza egin dezan.

**14:30** BAZKARI FEMINISTA, Eliza ondoan.
Antolatzailea: Oiartzungo Feministen Asanblada

**16:00** HELDUEN TAILERREN 24. ERAKUSKETA (margoak, bolilloak, eskulanak, taila, joste-lanak, pachwork, altzari-berritzea, eta abar), Done Eztebe Plazan.
Antolatzailea: HELTA Helduen Tailerrak

**17:00** IDI DEMAren bigarren txanda, hilerriaren goiko aldeko plazan.

**17:00** Herriko ERRALDOIEN eta BURUHANDIEN kale-bueltak, Beheko Plazan barrena, Tolarietan hasita.
Antolatzailea: Oiartzungo Erraldoien Konpartsa

**17:00** Oiartzungo HAURREN JOKO GARBI eta PALA TXAPELKETA HERRIKOIAren finalak, Kontzejupean.
Antolatzailea: Oiartzungo Eskola Kirola

**Ondoren** Binakako PALA TXAPELKETAren finalak, Kontzejupean. 18:00etan mutilak; 18:45ean neskak.
Antolatzailea: Girizia Pilota Saila eta Txost

**17:30** *MAGMA MIA* bakarrizketa BEATRIZ EGIAZABALen eskutik, Eliza ondoan.
Antolatzailea: Oiartzungo Feministen Asanblada

**17:45** Elizaldeko Dantza Taldearen emanaldia, Elizaldeko kaleetan Doneztebe Plazan, Madalensoron, Euskal Herria Plazan…
Antolatzailea: Elizaldeko Guraso Elkartea

**18:30** *ZIRKOZAURRE* ikuskizuna familientzat, Elizalde Eskolako frontoian.
Antolatzailea: Elizaldeko Guraso Elkartea

**18:45** OLARRI Oiartzungo Dantza Taldearen saiotxoa, Kastro iturri ondoan.
Antolatzailea: Olarri Dantza Taldea

**19:00** DANTZA-BILERA familian, Kastroko iturri inguruan: DOINARIN TALDEA.
Antolatzailea: Soinuenea Fundazioa

**19:00** HERRI KIROLEN JAIALDIA, Haurtzaro Ikastolako plazan. Aizkolariak eta Harri-jasotzaileak.
Antolatzailea: Iturri-Berri Elkartea




**22:00** Musika Jaialdia, Done Eztebe Plazan.
OLAIA INZIARTE
Antolatzaileak: Musika Batzordea

**22:00** OINKARI DANTZA TALDEAren ERROTAN emanaldia, Elorsoro kiroldegian.
Antolatzailea: Haurtzaro Dantza Taldea

**23:00** DJ BULL, Zimitiyoko txosnan, euskal musikaz girotua.
Antolatzailea: Zimitiyoko txosna

**23:00** HELDUEN DANBORRADA, Oiartzungo kaleetan zehar.
Antolatzaileak: Auzokalte Elkartea eta Haurtzaro Ikastola

**23:30** Musika Jaialdia, Txosnagunean.
ZURROUNK
ALARMA MOREA
Antolatzaileak: Musika Batzordea

**24:00** Dantzaldia, Done Eztebe Plazan. PATXI PEREZ
Antolatzaileak: Musika Batzordea

## ABUZTUAK 5 larunbata

### GAZTEEN EGUNA

**08:00** 41. EHIZA ZAKUR LEHIAKETA, Irastortza baserriko zelaietan.
Antolatzailea: Bizardia Ehiza Taldea

**09:00** GOIZ ERESIA.
Antolatzailea: Lartaun Txistulari Taldea

**09:30** Zabor bilketa herrian zehar, gaztetxoei eta familiei irekia.

**10:30** Zaborra bildu ondoren, hamaiketako txikia Kaskazuri Plazan.
Antolatzaileak: Abaraxka, Bazterrak Txukuntzen eta Elizalde Guraso Elkartea

**11:00** Jasotako hondakinekin, sormen tailerra: zabor erraldoi txikia Kaskazuri Plazan.

**12:00** Oiartzungo Herri Musika Eskolakoen eta Erraldoi Txikien kale-bueltak.
Antolatzaileak: Soinuenea Fundazioa, Abaraxka, Bazterrak Txukuntzen eta Elizalde Guraso Elkartea

**12:00** BERTSO JAIALDIA, txosnagunean.
Jone Uria Albizuri, Jon Maia Soria, Onintza Enbeita eta Igor Elortza Aranoa. Gai-jartzaile: Ander Lizarralde.
Antolatzailea: Martzelina Bertsozale Elkartea



| | |
|---|---|
| **12:30** | KANTU KANTARI. Kantuzale den orok herri-kantuen sorta ederra abesteko aukera izango du herriko kaleetan barrena. Denak gonbidatuta!<br>Antolatzailea: Lartaun Abesbatza |
| **13:30** | TRIKIPOTEOA, plazatik abiatuta.<br>Antolatzaileak: Biyurrienea |
| **14:00** | GAZTE TXUPINAZOA, plazan.<br>Antolatzaileak: Biyurrienea |
| **14:30** | GAZTEEN BAZKARIA, Done Eztebe plazan.<br>Antolatzaileak: Biyurrienea |
| **16:00** | Haur mailako banakako 23. XAKE LEHIAKETA, Madalensoron<br>Antolatzailea: Haurtzaro Ikastola |
| **17:00** | TXOKO JOLASAK, Arizmendienean hasita.<br>Antolatzailea: Haurtzaro Ikastola |
| **17:00** | EUSKAL PILOTA EGOKITUko erakustaldia, Madalensoro pilotalekuan.<br>Antolatzailea: Mindara Elkartea |
| **18:00** | 31. ARIN-ARIN ETA FANDANGO TXAPELKETA, gaztetxoentzat, Beheko Plazan. Gipuzkoa osoko dantzariak, 14 urtetik beherako neska-mutilak, Lartaun Txistulari Taldearen doinuekin dantzan. Antolatzailea: Aldeguna Elkartea |
| **18:00** | Elektrotxarangak gidatutako POTEOA tabernaz taberna. Jarraian, txosnagunean, JOKOAK.<br>Antolatzaileak: Biyurrienea |
| **19:00** | Goi mailako ESKUZKO PILOTA partidak, Madalensoro pilotalekuan:<br>Leire Galdeano-Nora Mendizabal, Maddalen Etxegarai-altxaso Erasun<br>Oier Zabaleta-Unax Landa, Oihan Etxeberria-Mikel Leonet<br>Antolatzailea: Oiarpe K. E. |
| **20:00** | DANTZA BILERA, Kastroko iturrian.<br>Antolatzailea: Soinuenea Fundazioa |
| **20:00** | DISKO ROLLER festa, Ikastolako frontoian.<br>Antolatzailea: Haurtzaro Ikastola |
| **23:00** | Dantzaldia, Done Eztebe Plazan: LAIOTZ taldearekin<br>Antolatzaileak: Musika Batzordea |
| **23:30** | DJ FRESA MORANGO, Txosnagunean<br>Antolatzaileak: Musika Batzordea |
| **24:00** | DJ La Fulana, Zimitiyoko txosnan.<br>Antolatzailea: Zimitiyoko txosna |




## ABUZTUAK 6 igandea

### HAURREN EGUNA

**09:00** GOIZ ERESIA.
Antolatzailea: Lartaun Txistulari Taldea

**10:00** 75. XANISTEBAN TXIRRINDULARI SARIA, Euskal Federazioak 23 urtez azpiko eta elite mailako txirrindularientzat antolatzen duen Euskaldun Saria.
Antolatzailea: OTXE Oarsoaldeako Txirrindulari Kirol Kluba

**10:30** Xanistebanetako HAURREN ESKU-PILOTA TXAPELKETA HERRIKOIAren finalak, binaka, Kontzejupean.
Antolatzailea: Oiarpe KE

**10:30** Gaztetxoen DANBORRADA.
Antolatzaileak: Ergoiengo Jai Batzordea eta Haurtzaro Ikastola

**11:30** ERRALDOIEN eta ERRALDOI TXIKIEN KALE-BUELTAK, Done Eztebe plazan hasita.
Antolatzailea: Oiartzungo Erraldoien Konpartsa

**12:00** Oiartzungo Herri Musika Eskolakoen kale-bueltak, Done Eztebe plazan hasita.
Antolatzailea: Soinuenea Fundazioa

**12:30** ARKUME ERRETZEA: *ARKUMEA BURDUNTZIAN, A ZE POZA TRIPAN SARTZIAN*.
Done Eztebe plazan, herri-poteoaren hasiera.

**14:30** ARKUME JATEA. Bazkalondoa, TXARANGAk alaituta.
Antolatzailea: Ardi Latxa elkartea

**16:00-20:00** Haurtzaro Ikastolako jolastokian, HAUR ETA GAZTEENTZAKO PARKEA.
Antolatzailea: Haurtzaro Ikastola

**16:00** Xanistebanetako 26. TRUK TXAPELKETA, Madalensoro pilotalekuan.
Antolatzailea: Oiarpe KE

**18:30** Haurrentzako TXOKOLATADA, Ikastolako jolastokian.
Antolatzailea: Haurtzaro Ikastola

## BARRAKAK

Barraketan **prezio bereziak** izango dira Oiartzunen Xanistebanetan:

Bidaia bat: 1,80 euro · 5 bidaia: 6 euro



**19:00** AITOR TXIKI XIV. ARETO FUTBOLEKO TXAPELKETAren finalak, Elorsoro kiroldegian.

**23:00** Dantzaldia, BIDE BATEZ taldearekin, Done Eztebe plazan.

**23:30** Musika Jaialdia, Txosnagunean.
AÑUBE
DANTZALL SOUND
Antolatzaileak: Musika Batzordea

**23:30** Elizaldeko kaleetan zehar, ZEZENSUZKOA ibiliko da, Lartaun Txistulari Taldeak *Idiarena* doinuz lagundurik.

**Ondoren** Dantzaldiaren jarraipena, BIDE BATEZ taldearekin, Done Eztebe plazan.
Antolatzaileak: Musika Batzordea

## ARRETA eta INFORMAZIO ZERBITZUA ERASO MATXISTEN AURREAN

**EGUNEKO ZERBITZUA**
Abuztuak 4 - 5 - 6
14:00-18:00

**GAUEKO ZERBITZUA**
Abuztuak 2tik 6ra
23:00-06:00

**LEKUA**
Mendiburu kalea 5 (txokolategi parean)

INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO XANISTEBANAK

OIARTZUNGO UDALA

## XORROLA XANISTEBANETAN

**Abuztuaren 3tik 7ra**, **Xorrola** herri barruko gaueko autobus zerbitzua egongo da.
Anbulatorioko eta Yon Oñatibia kaleko geltokiak Bibliotekako parera pasatuko dira.

**Gaueko zerbitzu berezia: lehen zerbitzua 00:00 / azkena 06:00**
Ibilbidea: Biblioteka, Gurutze, Ergoien Altzibar, Karrika, Iturriotz, Ibarre, Pikabene, Intxixu, Arragua, Mendin, Biblioteka.

## KIROL EKITALDIAK

### UZTAILAK 31, IASTELEHENA

**10:30** Xanistebanetako HAURREN ESKU-PILOTA TXAPELKETA HERRIKOIAren finalak, banaka, Kontzejupean.
Antolatzailea: Oiarpe KE

### ABUZTUAK 1, ASTEARTEA

**19:00** AITOR TXIKI XIV. ARETO FUTBOLEKO TXAPELKETAren finalerdiak, Haurtzaro Ikastolan.

**19:00** ESKUZKO PASAKA TXAPELKETA HERRIKOIAren eta GIPUZKOAKO ESKUZKO PASAKA TXAPELKETAren finalak, Kontzejupean.
Antolatzailea: Txost pilota elkartea

## KULTUR EKITALDIAK

### UZTAILAK 31, ASTELEHENA

**19:30** HIESaren aurkako Harri Beltza elkartearen eskutik, ALAIA BELAUNZARAN oiartzuarraren harpa-kontzertua, Done Eztebe elizan.

### ABUZTUAK 1, ASTEARTEA

**18:00** Arizmendieneko lorategian (eguraldi txarra bada, Landetxe Kultur Aretoan), Xanistebanetan ohitura den bezala, ***Oiartzun 2023*** urtekariaren aurkezpenari ekingo dio Udaleko Kultura Batzordeak.

**Jarraian** Xanistebanak 2023 kartel lehiaketako irabazleen sariak banatuko dira.

**Bukatzeko** herrian nabarmendu direnei omenaldia egingo die Udalak.

## ERAKUSKETAK

**XANISTEBANEK IRAUTEN DUTEN BITARTEAN**

**MANUEL LEKUONA BIBLIOTEKAN**
abuztuaren 1ean, 2an eta 4ean,
*Xanistebanak 2023* Kartel Lehiaketan parte hartu duten kartelen erakusketa
09:00 - 14:00

**ARIZMENDIENEAN**
abuztuak 10a arte
Helduen Tailerreko margolanekin erakusketa, Begoña Mendigutxiaren omenez.
09:00-14:00 eta 16:00-19:00
Antolatzaileak: HELTA Helduen Tailerrak.

## OHARRAK

**Oiartzungo Udalak** ez ditu bere gain hartuko jai hauetan gerta daitezkeen zorigaitzak. Halaber, egitarau honetan adierazten diren festa edo ekintzetan iruditzen zaizkion aldaketak egiteko ahalmena du.

Xanisteban festetako aurrekontua ikusgai egongo da helbide honetan, **oiartzun.eus/eu/Festak/Xanistebanak**, **Xanistebanetako aurrekontua** estekan.






OIARTZUNGO
UDALA

Azala: Xanistebanak 2023 iragartzen dituen kartela. Egilea: June San Sebastian Sein.